



# Hizkuntzaren arazoa Nazio Batuen Erakundeko eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko komitearen aurrean (Estatu Espainolari dagokiola)

SANTXO, Iñigo

Abokatu. Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Euskara Batzordeko Kidea  
Colón de Larreategi, 14-2º  
48001 Bilbo

BIBLID [1137-1951 (1996), 0; 107-111]

**Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Ituna**, 1966ko abenduaren 19an sortu zen. 1997ko apirilaren 13an, Estatu espainolak sinatu eta berretsi zuen, 1977ko apirilaren 30eko Estatuko Agintaritzaren Aldizkarian agertu zelarik. Horren ondorioz eta, Konstituzioaren 10.2, 93 eta hurrengo artikuluetan oinarrituz, Nazioarteko Itun hau Estatuaren barneko Ordenamenduaren parte da. Hortaz, eta Konstituzioaren 9. artikulua araberak, bai hiritarrok, baita Botere Publikoak ere berarekin loturik daude.

Era berean estatu espainolean, Nazioarteko Itun honekin batera, **Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna** ere sartu zen indarrean, EAA berean agertzen delarik (1977/04/30). Bi Itunok, elkarren osagarriak dira, eurer, betetzea aztertzen denean, biak uztarturik irakurri behar direlarik.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Itunaren 15. art.aren arabera, estatu espainolak, Hego Euskal Herriko hiritarroi, bizitza kulturalen parte hartzeko eskubidea arrezagutu behar digu.

Lehen esan bezala, artikulua honen edukia ulertu ahal izateko, bereizkeria edo diskriminazioa galerazten duten Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 26. eta 27. artikuluekin batera irakurri beharra dago. Beraz, bizitza kulturalen bete-betean parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da legearen aurrean pertsona guztiak berdinak izango garela bermatzea, guztientzako babes berdina eta efektiboa izango dela arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo beste edozein motatako bereizkeriaren aurrean. Azken finean, bertan agertzen den eskubidea, berezko hizkuntza erabili ahal izatean datza, horregatik kalterik jasan beharrik izan gabe.